

alferrekoa da: arma batekin su egiten duen lehen aldian ume bat zauritu egiten du nahigabe eta herrialdetik ezkutuan atera behar dute, Selmanek gertatzerik nahi ez zuena, hain zuzen.

Zenbait musulman juduak erasoetatik babesten saiatzen dira, beren bizitzak arriskuan jarrita eta, zenbait kasutan, bizia galduz ere. Selmanek gogoan du nola pogramoa hasi zenean ezezagun

### Naqqashek ez zion uko egin inoiz Irakeran itzultzeari. Ez zen sekula eroso sentitu Israelen, sionismoa tarteko

batek erreskatatu egin zuen. «Ez beldurrik izan!», esan zion; «zure eskolta izango naiz etxera iristen zaren arte, burua jokoan jartzen ari banaiz ere». Istorioak aurrera egin ahala, orde, maitasunaren pixkanakak gainbehera gertatzen da. Maitasun erromantikoaren lekua hartzen du prostituzioak eta auzokoarekiko maitasunarena mesfidantzak. Familiak banatu egiten dira. Ya'qub zapatariak auzokoa maitatzea agintzen duen manamendua gogoan hartuta, bere buruari galdetzen dio: «Benetan aldarrikatu ote du gizakiak hain errotikoa den maitasunaren porrota?».

### Hizkuntza aniztasuna

1951ko Irakeko juduen kanporaketa masiboa jazo baino zerbait lehenago, Farhah eta Abdallah Ghawi maizterrek umeak hartuta herrialdea uztea erabakitzen dute. Alabetakoa bat, Sai'dah, musulman batekin ezkunduta dago eta haurdun da. Farhah haiekin joateko erregutzen dio. «Benetan maite bagaituzu, umea hari [senarrari] eman eta gurekin alde egin». Malko artean ezetz erantzuten dio alabak, Bagdadeko musulmanen arabiar dialektoan. Sai'dahren hizkuntza aukeraketak agerian uzten du zeinen korapilatsua eta konplexua den Irakeko juduen eta musulmanen arteko harremana. Nobelan zehar herrialdeko arabiar dialektoak etengabe tartekatzen ditu, argi utzita haietako bat bera ere ez dagoela besteen eraginetik libre. *Bar Mitzvah*, esaterako, *Bar Misuah* idazten du pertsonaietako batek.

Akaso nobelaren izenburuan azaltzen diren amaraunek pertsonaiak bata besteari eta lurraldeari lotzen dituzten lokarri estuei egiten diete aipamen, edo agian 1951n maizter juduak galduta ostean eraikinen jabe egin zen hustasunaren irudikapena dira.

## Orainaldia etorkizunean

### Peru Iparragirre

**H**elene jada ez zaio ari, aspaldi, hamarka urte lehenagoko gertakariak. Lorearen munduaz ari da, eta Loreak ez du sekula entzun, ez pentsatu, desberdintasun oinarritzen denik bere mundua. Baina zentzu bete dauka Helenek dioenak.»

Horrela dio Maite Darcelesen *Bihotzean dramagun mundua* eleberriko pasarte batek. Etorkizun oso hurbilean jazotzen den istorio honetako protagonista, Lorea, hasiera batean ondo bizi da bere munduan, harik eta berezkoa duen jakin-minak mundu horren itxurazko oreka perfektuaren azpiko ustelkeriaz jabetzea eramango duen arte. Hori baita eleberraren gakoetako bat: kontzientzia hartzea.

Tesi nobela bat dela esan du beste inork ere. Hala izanik, batzuetan lanak izan ditut pertso-

naien diskurtsoa eta nobelarena berarena bereizten; bereizterik balego, behintzat. Diskurtsoaren eta gertakarien arteko orekan egiten du aurrera kontaktizunak, batzuetan oreka galtzen duen arren. Pasarte zehatz bat aipatzen arren: Loreari Helenek ematen dion gutuna; oso-osorik ageri da liburuan. Gutuna kontaktizunaren korapiloaren zati garrantzi-



### 'Bihotzean dramagun mundua'

**Idazlea:** Maite Darceles. **Argitaletxea:** Alberdania.

## Klima aldaketa

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero

**I**par poloko urtze neurrigabea kezka iturri bilakatzen ari da. Aukera asko ditu Lurraren gehiegizko beroketaren sinbolo bihurtzeko, izotzaren desagerpenak sortzen duen metafora ahaltzua lagun.

Mafala komiki sagak kezka honi heltzen dio, ikonikotasun gutxiago ez duen hartz zuriaren bidez. Orainsu kaleratu dute bigarren parte, bai pertsonaiekin, bai gidoiaren salaketa ekologistan ere lehenengoaren jarraipena dena.

Hirurogeita hamabi orrialdeko obra da, etzana, tapa gogorrekin babestua, eta kalitate oneko paperean emana.

Ilustrazioari dagokionez, estetikoki zein teknikoki ofizioko lana da, irudi ikoniko eta figuratiboen bidez emana, nagusiki

kolore paleta urdin-grisarekin, izotz-aldeetako istorio batean espero bezala.

Kontaketa anekdota xumea da, lehen obrak zeukan epika gabea, umorezko gag sorta baten kateamenduan oinarritutakoa. Izatekotan, agertzen duen ironiak ematen dio gatz apur bat kontaktari. Esaterako, gogoangarria da lera-zakurren eta hartzen arteko elkarrizketa.

10 bat urtetik aurrerako irakurlea gai ekologikoetan hausnarrean jartzeko egokia izan liteke.



### 'Waluk 2: Bidaia handia'

**Idazlea:** Emilio Ruiz. **Ilustratzailea:** Ana Miralles. **Itzultzailea:** Bego Montorio. **Argitaletxea:** Astiberri.

tsua da, bertan ematen zaio, era berean, irakurleari etorkizun hurbil horren egiazko iraganaren berri -gure orainaldiaren berri, alegia-; Helenen perspektibatik, nolana ere. Lorearen jakin-minarene asetzera ere bada. Baina, are garrantzizkoago, berarentzat ezezagun diren iraganeko askapen borrokan berriak dira gutunean kontatutakoak.

Gutunak narrazioaren harian garrantzia badu ere eleberraren erritmoa ia erabat hausten duela begitandu zait. Ordura arteko eta hortik aurrerako erritmoa bizia da, Darcelesen prosa bizia baita, entretenigarria, irakurlea istorioaren hari batetik bestera airoski daramana. Diskurtsoaren pisuak tarteka moteltzen badu ere, batzuetan goia jotzen du kontaktizunak: eleberririk pasarte gogoangarriak dituela iruditu zait.

Diskurtsoaren eta gertakarien arteko orekan bada pisuzko beste elementu bat: etorkizuna. Arestian esan bezala, etorkizun *distopikoa* ageri da eleberrian, nahiz eta idilikoa izan bertako biztanle gehienentzat. Teknologiaren garapenak gizartearen erabateko kontrola ahalbidetzen du eta kontzientziak hustua da bizimodua: azalekoa, menekoa. Darcele-

sek lortzen du fokua pertsonaiekin jarri eta etorkizun ustez idiliko horren berri haien bitartez ematen: ez da xehetasun teknikoak aletzen galtzen.

Eleberririk aldeztu duen diskurtsoarekin izan dut, agian, lan gehien. Sinesgogortasuna eteteaz gain, halakoetan zinismoa bera ere eten behar izaten baita, eta nekezago izaten da hori. Kontzientzia hartzearen kontaktizuna xaloka gerta baitaiteke batzuetan, ia erabateko ezjakintasun edota pasibotasun egoerak egunero bizi ditugula konturatzeko.

Zientzia fikziozkoa da eleberrira, eta aipatu izan da gurean halako askorik ez dela argitaratzen. Generoak teknologiaren garapenaren inguruko espekulazioez gain egungo gizartearen kritika egiteko parada paregabea ematen dio egileari, nahiz eta ikuspegia orokorra izan: mendebaldeko gizarte kapitalistaren dekadentzia. Egungo joera batzuk muturrera eramane eta haien gaitzez ohartarazten du *Bihotzean dramagun mundua*-k. Era berean, mundu berri baten desira den desiraren ispilu, behar bada.

## Xume

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero

**O**rgi eta zuhaitz: uda-berria, uda, udazkena, negua. Lau urtaror landan bizi diren Orgi eta Zuhaitz ezagutzeko. Bakoitza bere etxetxoan, elkarren ondoan. Orgi saiatua eta txukuna da, nabarduretan begia jarri baitaurrekoak irabazi dituen horietakoa. Zuhaitz bestelakoa da, irrazionala, unean unekoa bizi duena bihotza eskuetan daramala. Antagonistak dira.

Kontaktizuna erdibana daramate ilustrazioek eta testuak. Testuak lan zaila dauka, poetikotasuna mantentzen batetik eta gertakarien kronika egiten bestetik. Esango nuke bere eginbeharrak betetzen duela, oro har, nahiz eta disonantzia uneak dituela iruditu zaidan. Era berean, halako oreka zaileko testu batek itzulpe-

narekin asko sufritzen du, eta, tamalez, nahi baino gehiago nabaritzen da jatorrikotik euskarazkora dagoen alde.

Irudiek orri-bikoak hartzen dituzte. Koloretako arkatza, tinta eta estanpatua bezalako bitarteko bidez eginak dira, eta emaitza leuna bezain iradokitzailea da, testuak duen tonu poetikoari azpia egin nahiko balioke bezala.

Hausnarketa oso interesgarria proposatzen duela iruditu zait, esaten duena eta esateko moduan bat datorrena gainera: xume aritzeak balio du.



### 'Orgi eta Zuhaitz'

**Idazlea:** Karen Hottis. **Ilustratzailea:** Delphine Renon. **Itzultzailea:** Aztiri. **Argitaletxea:** Ttartalo.